



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 18a

51 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Plana betetzen dela bermatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).
- Foru Legea, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituena. Akats zuzenketa (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorrek estazioek igortzen duten erradiazio elektromagnetikoari buruzko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da zenbait jarduketa egin ditzan Gaztelu Plazan lurpeko aparkalekua eraikitzeko proiektuan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultzatzea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Iruña-Logroño autobiarene eta Lizarrako merindadeko herrien arteko lotuneei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

- Galdera, Errioxako Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunekin eta Sustapen Ministerioarekin Iruña-Logroño autobia lotzeko dagoen koordinazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroak Madril enbaxadoreak eginiko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Beriaineko minda-isurketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, sare publikoko liburutegien ordutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Udako Euskal Unibertsitatearen inguruko zenbait jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikulua batzuren interpretazioari eta artikulua horiek Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko egoitza berriko altzariak erosteko lehiaketa (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkar-

gunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Plana betetzen dela bermatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Plana betetzen dela bermatzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko otsailaren 21eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen

AKATS ZUZENKETA

Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen Foru Legean akats bat antzeman da. Lege hori 2002ko maiatzaren 9ko 47. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Izan ere, hona zuzenketa:

20. orrialdean, 14. artikulua "1. Artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritako salbuespenak sal-

buespen, 10. artikuluan aipatzen den historia klinikoko dokumentazioa eta hartan agertzen diren datuen kopia bat eskuratzeko eskubidea dauka gaixoak". esan ordez, zera esan behar du: "1. 10. artikuluan aipatzen den historia klinikoko dokumentazioa eta hartan agertzen diren datuen kopia bat eskuratzeko eskubidea dauka gaixoak".

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorreko estazioek igortzen duten erradiazio elektromagnetikoari buruzko azterlan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefonia mugikorreko estazioek igortzen duten erradiazio elektromagnetikoari buruzko azterlan bat egin dezan".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da zenbait jarduketa egin ditzan Gaztelu Plazan lurpeko aparkalekua eraikitzeke proiektuan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da zenbait jarduketa egin ditzan Gaztelu Plazan lurpeko aparkalekua eraikitzeke proiektuan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da zenbait jarduketa egin ditzan Gaztelu Plazan lurpeko aparkalekua eraikitzeke proiektuan

Nafarroako Parlamentu honen iritziz, ondare historiko artistikoaren kontserbazioa eta babesa Nafarroako gizarte osoaren erantzukizuna da. Beraz, Gaztelu Plazan lurpeko aparkalekua eraikitzeke proiektua dela eta, moratoria bat eskatzen dio Iruñeko Udalari, hondakin arkeologikoak soseguz ebaluatu ahal izateko, aurrerago nola jokatu erabakitzeke. Halaber, aipatu udalari eskatzen zaio Osoko Bilkuraren erabakiari eutsi diezaiola. Erabaki horren bidez obra zibilaren hasieraren moratoria bat onetsi zen indusketa arkeologikoak bukatu arte.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultzatzen

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultzatzen".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultzatzen

1. Nafarroako Parlamentuak pozez hartu du Merkataritzaren Mundu Erakundeak Qatarren egintza goi-bileran garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideen inguruan lortu den akordioa.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, Europar Batasuneko lehendakaritzan dagoela baliatuz, behar diren neurriak har eta susta ditzan Merkataritzaren Mundu Erakundearen barrenean ezartzeko, 2002. urtea amaitu baino lehen, sendagaiak ekoizteko ahalmenik ez duten herrialde txiroei akordio horretan onartzen den inportazio ahalmena erabiltzeko bide emanen dieten tresnak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du susta ditzan, halaber, Ekintza Programan GIB/HIES, malaria eta tuberkulosia gaitzen kontrako borroka bizkortzeko aurreikusiriko jarduketak, txirotasuna murrizteko testuinguruan, eta bereziki sendagaiak ekoizteko tokian tokiko ahalmena garatzeari dagozkionak.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruña-Logroño autobia- ren eta Lizarrako merindadeko herrien arteko lotuneei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Iruña-Logroño autobia-
ren eta Lizarrako merindadeko herrien arteko lotuneei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agin-
tzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 26ko
121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Iruña-Logroño autobia-
ren eta Lizarrako merindadeko herrien arteko lotuneei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Aipagai dugun proiektuak duen alternatibean azterlanean, ikuspegi hori erabili al da autobia merindadeko herri guztiekin lotzeari dagokionez?

Iruña-Lizarrako autobia-
ren proiektuaren asmoa izan da, hasiera-hasieratik, haren eragin-
peko eremu guztiaren irisgarritasuna, iragazkorta-
suna eta egituraketa hobetzeko errepide handia izatea.

2. Ez al duzu uste trazadurarekin batera eskualdeak duen egoeraren diagnostiko bat egin behar dela, hots, ahuleziak, arriskuak, alderdi sendoak, aukerak, eta abar aztertu behar direla?

Ez.

3. Ez al duzu uste egokiago dela trazaduraren proiektuari gehitzea eskualdearen ahuleziei aurre egin eta horren aukerak ahalik eta hoberen aprobetxatzeko neurriak, horiek merindadeko biztanle-
en aprobetxagarri izan daitezkeen?

Ez.

4. Proiektua "errepide" soilarena bada, zehar-
katzen duen zatia besterik ez badu kontuan har-
tzen eta ez lurralde osoa, garapenerako plan oso bat ez badu, ez al duzu uste ez dituela asetuko eskualde horretako herritarrek zituzten itxarope-
nak?

Lehenengo galderari emandako erantzunean esan den bezala, Iruña-Lizarrako autobia-
ren proiektua ez dago pentsaturik ibilbide luzeko autobia izateko, baizik eta Lizarrako merindadeko interesen mesederako komunikazio bidea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduen 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 13an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Errioxako Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunekin eta Sustapen Ministerioarekin Iruña-Logroño autobia lotzeko dagoen koordinazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Errioxako Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunekin eta Sustapen Ministerioarekin Iruña-Logroño autobia lotzeko dagoen koordinazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Iruña-Logroño autobiaaren Lizarra-Logroño tartearen trazadurari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Hitzartu al du dagoeneko zure departamentuak Errioxako erkidegoko administrazio eskudunekin eta Sustapen Ministerioarekin zer trazadura hautatuko den autobia hori Logroñorekin lotzeko?

Galderaren testuan "administrazio eskudunak", Errioxako autonomia erkidegoa eta Sustapen Ministerioa aipatzen badira ere, esan beharra daukat gai honetan eskumena duen administrazio bakarra Sustapen Ministerioa dela.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua beti egoten da harremanetan ministerio horrekin, bi administrazioen eskumenekoak diren bide ardatzetako jarduketak koordinatzeko.

2. Herrilan Batzordeak onetsitako erabaki bat du oinarri proiektuak, eta erabaki hark zuen funtsezko oinarria zen "Iruña-Logroño trazaduraren proiektu osoa egitea, eta horri bide azkarraren forma ematea" Zer asmo du zure departamentuak, Iruña-Logroño errepidea autobia izan dadila edo bi autobia zati besterik ez ditzala izan eta 10 km inguruko inbutuak bere horretan jarrai dezala biztanle gehien dagoen lekuan, Lizarran alegia? Ez al duzu uste aukera hori Parlamentuak agindutakoa ez betetzea dela?

Lizarrako saihezbidea autobia bihurtuko da Iguzkitza/Aiegi/NA-132-B lotunetik aitzina, iparraldeko alternatiba hautatzen bada. Hala eginez gero, Lizarrako saihezbidearen 7,7 kilometro geldituko dira aurrerago autobia bihurtzeko; hortaz, epe ertainean Iruña-Logroño ardatz osoa izanen da autobia eta ez da beraz Parlamentuaren agindutakoa bete gabe utziko.

3. Iruña-Logroño autobiaaren azterlanean (2. tarte), baloratu al ditu zure departamentuak, aztertutako alternatiba guztietan, ingurumenarekin zerikusia duten alderdi hauek: kutsadura atmosferikoa, zarata mailak, babestutako natur guneek izanen lituzketen ukipenak eta kultur ondareak izanen lituzkeen ukipenak?

Aurretiko azterlan, aurreproiektu eta proiektuetan Iruña-Lizarra-Logroño autobiaaren dokumentazio teknikoak, tarte guztietan, bete egin ditu ingurumenaren arloko beharkizun guztiak.

4. Museo, Ondasun Higigarri eta Arkeologi Atalak egin behar al du proiektu horiei buruzko txostenik oraingo fase honetan? Egin al du kasu honetan?

Bai.

5. Izan al du kontuan zure departamentuak aztarnategi arkeologikoak daudela errepide proiektuek hartzen dituzten eremuan?

Bai.

6. Zer ukipen eginen zaizkio Donejakue Bideari?

Iruña-Logroño autobia, Lizarra-logroño tartean, ez dio inolako ukipenik egiten Donejakueren adar nagusiari.

Bigarren mailako adarrean, Lukin/Urbiola aldean, bidegurutze bat dago, baina konponbide ona eman zaio, arlo honetan aplikatzekoak diren araeekin bat.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 13an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 11ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du toki administrazio batzuetan idazkaritzak elkartzearen inguruko arazoei buruz. Hona hemen erantzuna.

1.- Ba al du prest Nafarroako Gobernuak eskatutako titulua duten eta lanerako pronto leudekeen pertsonen zerrenda –2000n iragarri zuenari jarraikiz– Nafarroako Foru Komunitatean idazkari kidegoen gertatzen diren aldi baterako bajak betetzeko?

Egia da badela Nafarroako toki entitateen idazkari karguan aritzeko titulua duten langileen zerrenda bat, horretarako eginiko deialdiaren araberakoa. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta probek merezimendu eta gaitasunaren printzipioak bete zituzten, baita publikitatearena ere, hautapen prozesu osoan.

2.- Toki Administrazioiko Departamentua idazkari lanpostu betetzea, zenbait kasutan orain 10 eta 12 urte egin zena, ofizioz baliogabetzen ari da. Zergatik ari da betetze horien aurkako errekursoak orain jartzen? Kontuan izanda Toki Administrazioari buruzko Foru Legea 1990ekoa dela, zergatik ez zuen halakorik egin aurreko urteetan?

Toki Administrazioiko Departamentua ez da baliogabetzen ari, baizik eta zenbait udali eskatzen bere idazkari izendapena ofizioz berraztertzeko prozedurari ekin diezaion, kasu gehienetan salaketa egin ondoren edo lanpostu horiek eskuartzeko modua azaltzen duten plantilla organikoak aldatu izanagatik.

3.- Aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak inolako lege-neurririk –Toki Administrazioari buruzko 1990eko Foru Legean xedatutakoari jarraikiz– lanpostu finkoen betetzea desblokeatzeko?

Nafarroako Gobernua ari da aztertzen zein neurri hartu Toki Administrazioari buruzko Foru Legea desblokeatzeko, idazkari lanpostuen gaian. Une hauetan saiatzen ari gara afera horretan zerikusia duten eragileekin ados jartzen.

4.- Zenbat toki entitate eragiten diote Toki Administrazioiko Departamentua hartzen ari den neurri berri horiek? Entitate horien zerrenda eta ukitutako pertsonen antzinatea jakin nahi dugu.

Ezin dugu esan neurri “berriak” direnik, Administrazio eta Prozedura Legean aurreikusirik baitaude.

Une hauetan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan daude toki entitate hauek:

– Leozko Udala, aholkulari juridikoaren eta idazkariaren izendapena.

– Abartzuzako udalen elkarteak, idazkariaren izendapena.

– Bargotako Udala, idazkariaren izendapena.

– Esako Udala.

Iruñean, 2001eko abenduaren 11n

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Nafarroak Madrilen duen enbaxadoreak eginiko lanei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroak Madrilen duen enbaxadoreak eginiko lanei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 12ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Nafarroak Madrilen duen enbaxadoreak eginiko lanei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Madrilen duen enbaxadore Ricardo de León jaunak hainbat esparrutan jardun du. Administrazio zentralarekiko eta gainerako autonomia administrazioekiko harremanei dagokienez, zenbait espediente administratiboren azterketan eta kudeaketan hartu du parte Ekonomia eta Ogasun Ministerioan, Administrazio publikoetako Ministerioan, Ingurumen, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioan eta Justizia eta Barne Ministerioan.

Madrilen kreditaturiko ordezkariarekin eta Espainiak beste herrialdeetan dituen ordezkariarekin diplomatikoekin izandako harremanei dagokienez, berriz, nabarmendu behar dira honako enbaxada hauekin izandakoak: Bolivia, Kolonbia, Mexiko, Alemania, Errusia, Txinako Herri Errepublikak, Libia, Tunisia, Belgika eta Hungaria, besteak beste. Era berean, harremanak ezarri dira bestelako gizarte erakunde batzuekin, hala nola prentsa elkartearekin, komunikabideekin, irabazi asmorik gabeko erakundeekin eta Nafarroako enprekin.

Orain abian dituen jarduketak zehatzak dira bete beharreko kudeaketan inguruan Gobernuak egiten dizkion eskaerei erantzuna ematea eta delegazioaren egitura, antolaketa eta eginkizunak arautuko dituen dekretua prestatzen laguntzea. Halaber, gizarte, politika eta ekonomia esparruetako pertsona ospetsuen bidaiak programatzen dira, baita enbaxadoreek Nafarroara egindakoak ere.

Ricardo de León jaunak ez du Nafarroako Gobernuak esleitutakoez gain beste lanik egin.

Orain arte izan diren hilabeteko kostuei buruz esan beharra dago 175.000 pezeta, oro harreko zenbatekoa, ordaindu direla operazioa formalizatzeko –eskritura gastuak eta Erregistroa– eta 315.547 pezeta jabeen erkidegoari.

Inbertsio-gastuen aurreikuspenaz esan behar da lizitazioaren oinarri izan behar duen pleguari azken ukituak ematen ari zaizkiola eta, beraz, gutxi gora beherako zifrak baizik ez dagoela ematerik dokumentazio tekniko osatu eta lizitazioa egin arte, behintzat.

Kontuan hartu behar da kontratua Nafarroatik kanpo beteko dela eta horrek zenbait aldaketa eta muga eragiten dituela lanen kontratazioan eta exekuzioan, ezin baita zehaztu, adibidez, zein izanen den lan horrek –Nafarroan salbuetsitakoa izanen litzatekeena– kanpoan sortu ditzakeen tasen zenbatekoa.

Nolanahi ere, esku artean ditugun aurreikuspenak ikusirik, inbertsioaren kostu osoa (lana, laguntza eta kostuak) 480.809.68 euro (80 milioi pezeta) ingurukoa izanen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2001eko abenduaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Beriaineko minda-isurketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Beriaineko minda-isurketei buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du Beriain inguruko lurretan izan omen diren minda-isurketei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan bildutako informazioaren arabera, ez da minda-isurketarik (granjetako hondakin likidorik) izan POSUSaren gatz-hondakindegia lehengoratzeko eremuan.

1. Irailaren 15 eta 16an eta azaroaren 6, 7 eta 8an 11 Tm biosolidotako –zehazki, Iruñerriko hiri hondakin-uren tratamendurako araztegitik hartutako lohi egonkortu eta higienizatuak– aplikazioak egin dira, POSUSaren gatz-hondakindegiko eremu lehengoratu batean (13-15 hektarea) landaretza ahal den azkarren ezartzen laguntzeko; gauza bera egin zen, bere garaian, Galarko Espartzako eta Arlegiko gatz hondakindegia, Erriberriko legardiak eta Ezkabako eta Argiñarizko abortegiak lehengoratzeko, eta emaitzak oso onak izan ziren, Iruñerriko soroetan duela hamar urtetik hona egiten den moduan.

2. Lan horiek egiterakoan departamentu honek aholkatzen dituen jardun egokirako kodeak, hau da, lohiak barreiatu eta berehala lurperatzea, bete ez izanaren berri ez dugu departamentu honetan.

3. Azaroaren 15ean ikuskapena egin zen eta ez zen sumatu ez kiratsik ez eta ingurumenaren

gaineko beste inolako eraginik gatz hondakindegia-riaren inguruetan.

4. Arestian esandakoari jarraikiz, direlako jarduketara horiek ez dira argibide edo, beharrezkoa bada, zehapen espedienterik irekitzeko modukoak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 17an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

Osasun kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, 2001eko azaroaren 14an, galdera egin du Beriaineko minda-isurketei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1. Osasun Publikoaren Institutuko Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Atalean ez da jaso Beriaingo Udalaren inongo jakinarazpenik ANECOP enpresak herri horretan kudeatzen dituen ustezko minda-isurketen inguruan

2. Bai jarduera sailkatuen inguruan dauden erregelamendu eta arauak bai abeltzaintzako ustiategiak baimentzeko higiene, osasun eta ingurumenaren arloan bete beharreko baldintzak ezartzen dituen uztailaren 24ko 188/1986 Foru Dekretuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren esku uzten dituzte jarduerak geldiarazi eta zehapen espedienteak irekitzeko eskumenak.

3. Era berean, gertaera hauen gainean Ebroko Konfederazio Hidrografikoak izanen luke eskumena, uren arloan indarra duen araudia aplikaturik.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 4ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernua Lizarrako udalerriko katastroko 6. poligonoko 798. finkaren jabe zen. Finkak 4.185 m² zeuzkan eta Ondasunen Inbentario Orokorrean zegoen inskribaturik, T097004 espedientearen A002586 dossierrarekin.

Nafarroako Gobernuko Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak behin betikoz onartu zuen Lizarrako udal planeamenduak finka hura ukitzen zuen, 14.3 exekuzio unitatearen barrenean.

2001eko otsailean, 14.3 exekuzio unitatearen gainerakoaren eskubideen eta probetxamenduen jabe zen "Grupo Danai S.L." enpresaren idazki bat jaso zen, Nafarroako Gobernuaren zatia berrogei milioi (40.000.000) pezetaren truke -gehi BEZa-erosteko proposamenarekin eta, horrez gain, Nafarroako Gobernua urbanizazio proiektuarengatik eta exekuzio kostuengatik zegokion gastuen zatia ordaindu beharrik ez zuen izan.

Operazioa aztertutik, salmentaren aldeko txostena eman zen, eraikuntzaren tipologia etxebizitza librerari egokitzen zitzaiolako, ez etxebizitza babestuari. Era berean, egokia iritzi zitzaion eskainitako prezioari.

Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearen 19. artikulua ezarri zuen besterentzeko prozedurak enkante publikoa izan behar zuela. Nafarroako Gobernuak, halere, zuzeneko besterentzea erabaki dezake, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak txostena eman ondotik, baldin eta, beste baldintza batzuen artean, ondasunaren izaera dela-eta, ezinezkoa edo oso zaila bada lehia publikoa, eta lege aurreikuspen hori kasu honetan aplikatzekoa zela iritzi zitzaion.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2001eko abenduaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, sare publikoko liburutegien ordutegiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak sare publikoko liburutegien ordutegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 4ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du sare publikoko liburutegien ordutegiari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko liburutegietarako, oro har, ezarritako ordutegia hauxe da:

Lanaldi osoko liburutegiak astelehenetik ostiralera egoten dira zabalik, 15:00etatik 21:00etara. Astean 25 orduko lanaldia egiten duten liburutegiak astelehenetik ostiralera egoten dira irekita, 17:00etatik 20:30era.

Udan ordutegia aldatu egiten da eta bi mota daude: ekainaren 11tik irailaren 7ra edo uztailaren

2tik irailaren 28ra. Lanaldi osoko liburutegiak astelehenetik ostiralera egoten dira zabalik, 8:30etik 14:30era. Astean 25 orduko lanaldia egiten duten liburutegiak astelehenetik ostiralera egoten dira irekita, 9:30etik 13:00etara.

Arau honetatik kanpo daude Tutera eta Lizarrako liburutegiak, goiz eta arratsaldeko lanaldian egoten baitira irekita, astelehenetik ostiralera.

2. Liburutegien kudeaketa Nafarroako Gobernuaren eta udalen arteko hitzarmen batek zuzentzen du, eta titularitatea udalena izaten da. Hitzarmentan ezarririk dago Nafarroako Gobernuak emanen dizkiola liburutegi publikoari liburutegiko arduraren zuzendaritza eta udalak liburutegiari eman ahalko dizkiola beharrezkoak diren teknikariak, laguntzaileak edo menpekoak. Liburutegiak larunbatetan zabaltzekotan ikasteko izanen da gehien bat, ikasleak dauden herri edo auzoen kasuan soilik. Kasu horietan ez litzateke beharrezkoa izanen liburutegiko arduraduna bertan egotea, eta nahikoa izanen litzateke laguntzaile edo menpeko langile baten presentzia.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 20an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-

lean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 4ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzeko dirulaguntzetarako deialdia onesteko uztailaren 4an eman zuen 149/2001 Ebazpenean, bederatzigarren oinarrian ageri dira laguntzak baloratu eta adjudikatzeko irizpideak. Ebazpen hori abuztuaren 10eko 97. NAO n argitaratu zen.

2. Deialdi bakoitzean, bertan ezarritako merezimenduak betetzen dituzten komunikabideek jasotzen dute dagokien laguntza. Aipatu 149/2001

Ebazpenaren hirugarren oinarrian zehazturik daude zein diren baldintzak aurten laguntzak hartzeko. Ez zaio dirulaguntza kendu Nafarroako komunikabide bati ere.

3. "Euskalerria Irratiaren" eta "Ttipi-Ttapa" aldizkariaren kasuetan, erabilitako irizpideak izan dira 149/2001 Ebazpenaren bederatzigarren oinarrian ezarritakoak. Zenbait komunikabiderentzako laguntzak aurreko deialdietan baino txikiagoak izan dira, baina beste batzuen kasuan handitu egin dira, hala nola, "Ttipi-Ttapa Telebistaren" kasuan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 20an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Galdera, Udako Euskal Unibertsitatearen inguruko zenbait jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Udako Euskal Unibertsitatearen inguruko zenbait jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 4ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubiok andreak galdera egin du Udako Euskal Unibertsitatearen inguruko zenbait jarduketei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ezarri du, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bere lehentasunezko helburuetako bat dela Nafarroako unibertsitateak eta entzute handiko beste kultur entitate batzuk, egoitza nagusia Nafarroan izan eta jarduera gehienak gure erkidegoan egiten

dituztenak, sustatzea. Horretarako hartu dira zenbait neurri, hala nola, akordioak edo hitzarmenak izenpetzea, ikastaroak eta jarduerak egiteko lankidetzak, dirulaguntzetarako deialdiak etab.

2. Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren helburuei erantzuten ez dieten akordio edo hitzarmen orain arte indardunek aztertu eginen dira, gaurkotzeko edo bertan behera uzteko. Udako Euskal Unibertsitatearekin zegoen akordioa bertan behera uztea testuinguru horretan gertatu da eta, beraz, akordioari amaiera ematea eragin zuten arrazoiak bere horretan diren bitartean ez da beharrezkotzat jotzen hartu diren erabakiak aldatzea.

3. "Unibertsitate" izenaren erabilera desegokia dela-eta, zain gaude Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak horren inguruan zein erabaki hartuko, arazoak jabeturik, arau oinarrikoak ematea aztertzen ari baita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Galdera, Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikuluko batzuren interpretazioari eta artikuluko horiek Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikuluko batzuren interpretazioari eta artikuluko horiek Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Galdera hori 2001eko abenduaren 11ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen artikuluko batzuren interpretazioari eta Nafarroako aurrekontu orokorren zenbait alderditan duten eraginari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko (aurrerantzean, OPL) 37. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letrak ezarri zuen "luzatutako kredituen zenbatekoa izanen da luzatu behar den aurrekontua zein ekitalditarako den ekitaldi horretako abenduaren 31n bateraturiko aurrekontu-kopuruak egiten duena". Hartara, Nafarroako Gobernuaren interpretazioa da 2001eko abenduaren 31n bateraturiko kopuruak luzatzen direla, ez hasierako kredituak.

OPLko 37. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letrak honela dio: "luzapen aldiaren zehar bere garaian indarra zuten baimenen indarrez aurretik hitzartutako gastuak egin ahal izanen dira. Gastu horiek egiteko muga luzapena gertatzen den ekitaldi ekonomikoari dagokion hitzarmena betetzeko behar den kopurua izanen da".

Horrenbestez, hitzarturiko gastuez denaz bezainbatean, Nafarroako Gobernuaren ustez OPLak ezarritakoaren indarrez egin daitezke halako gastuak, betiere ezarritako mugekin. Foru legeak ez ditu gastu arruntak eta inbertsio-gastuak bereizten.

Gastu arruntei edo/eta urte anitzeko inbertsioei dagokienez, hitzarturik badaude, aurreko ekitaldian adierazitakoari egokituko zaizkio. Hitzarturik ez baldin badaude, luzapena indarrean dagoen aldiaren egin beharreko gainerako gastuen tratamendu bera emanen zaie.

OPLko 45. artikuluko 1. idatz-zatiak ezarri zenez, "zabaldu ahal izanen dira, aitortzen diren obligazioen mugaraino, ondoko kredituak:

a) Ordainsariak ordaintzeko, Gizarte Segurantzari kotizatuzko eta lege ezarritako gainerako prestazioetarako behar direnak, hitzarmen kolektiboetan edo lege mailako beste arauetan ekitaldian zehar onetsitako lansariaren igoeraren ondoriozko betebeharrei erantzuteko behar den guztian."

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren ustez, ituna luzapen aldiaren gertatzen bada, exekutatu ahal izanen da, aurretik ezarritakoak oinarri. Ituna 2001eko abenduaren 31 baino lehenagokoa bada, ordea, OPLko 37. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letran araututakoari begiratu beharko zaio.

Batasuna Parlamentuko Taldeak planteatzen duena da zer gertatuko den 2001erako Nafarroako KPI erreala 2001erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen hasiera batean aurreikusitakoa (% 2) baino handiagoa baldin bada. Horri erantzuteko esan behar dugu langileria gastuetan baizik ez duela horrek berehalako ondorioz izanen.

2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarriak hori aurreikusi egin zuen, eta gertatuz gerotan hari aurre egiteko behar diren tresnak ezarrita daude.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluko eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 3an

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak 2001eko apirilaren 20an galdera egin du heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

70-80 urteetan heroinaren kontsumoa determinantea izan zen gazte multzo batek, ez oso handia, garrantzi handiko prozesu sozio-sanitario bat jasateko; haren ondorioz, batzuk hil egin ziren, baina denek, beren gertukoak barne, sufrimendu gehiegi pairatu behar izan zuten.

Droga administratzeko ohiturak ere kolektibo honengan eragin garrantzitsua izandako elementu bat izan ziren, infekzio sendaezinak transmititzearen ondorioz.

Gaur egun heroinaren kontsumoa egonkor dagoela esan daiteke, jaisteko halako joera arin batekin, baina adi jarraitu behar dugu, beste kontsumo-aldi bat hasteko baldintzak berriz gerta daitezkeelako.

70-80 urteetan heroina kontsumitu eta hil ez direnei buruz, esan behar dugu haietako batzuek kontsumitzeari utzi eta guztiz gizarteraturik daudela; beste batzuk berriz egonkor daude, heroinaren eragina ordezteko opiazeoez eginiko tratamenduak hartzen; azkenik, beste batzuek, asko izan ez arren benetan arazo larria izateagatik aintzat hartu behar ditugunek, kontsumoari loturik jarraitzen dute, maila ezberdineko programa terapeutikoetan daudela (opiazeoekin ordezeko tratamendu ambulatorioaren bidezko mantentze programa, araubide itxian eta bestelako eskaintza terapeutikoak).

Azken talde horrek onura handiak jaso ditzake heroina bidezko tratamenduekin, baina hori, tamalez, ezinezkoa da Espainian (Espainiak 1966ko otsailaren 3an 1961eko estupefazianteei buruzko hitzarmen bakarra onetsi zuen; hartan, heroina I. multzoan dago. I. zerrendako estupefazianteek hitzarmen horren arabera estupefazianteei aplikatu beharreko fiskalizazio neurri guztiak bete behar dituzte).

Duela bi urte, Andaluziako Autonomia Erkidegoan saio kliniko bat hasi zuten benabarnetik hartutako heroinak zein onura ekar ditzakeen zehazten saiatzeko, hain zuzen ere gaur egun aho bidez ematen diren beste opiazeo batzuen tratamenduaren aldean.

Arrazoi desberdinengatik saio hori ezin izan zen gauzatu. Garai hartan, Kataluniako Autonomia Erkidegoak beste saio kliniko bat diseinatu zuen aho bidez hartutako heroinaren eta aho bidez emandako metadonaren eta morfinaren eragina alderatzeko (zorizko eta itsu bikuneko saiakuntza zen).

Berriki, Medikamentuaren Espainiako Agentziak baimena eman du heroinarekin saio klinikoak egiteko; bestalde, Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzan sortu zen adituen batzordeak, maiatzaren 5eko bilkuran, argi berdea eman zien ere halako saioei.

Egungo egoera:

Andaluzia eta Kataluniako autonomia erkidegoek saio klinikoa egiteko beren proposamenak tramitatu behar dituzte, eta Medikamentuaren Espainiako Agentziak horretarako baimena eman behar du. Behin onetsi ondoren, proposatzen den aldian gauzatu ahal izanen da (6 hilabete direla jo da).

Saio klinikoa bukatu, azterlanean parte hartutako pertsonen, hain zuzen ere heroina ematen zitzaizkion, ezin izanen zaie heroina ematen jarraitu, heroinaren erruki-erabilera baimendu gabe baitago.

Horrenbestez, inongo kasutan ere ez zaie heroinarik emanen sendagilearen errezetarekin.

Valentzia, Madril eta Kantabriako autonomia erkidegoetan bi aukera daude: edo jada baimendutako saio klinikoren bati atxikitzen zaizkio edo

beren saio propioa planteatu beharko dute. Gaurkoz ez dakigu zein den haien asmoa.

Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planeko zuzendaritza teknikoa saio klinikoan emaitzen zain dago, eta emaitzak erabilera terapeutikoen aldekoak izan eta indarreko legeek horretarako bidea ematen badute, gure erkidegoko erabilera publikoko laguntza sareko profesionalen esku jarriko da. Ezin besterik izan, Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planak hitzez hitz jasotzen baitu abian jarriko direla eraginkortasun aitortua duten programa terapeutiko guztiak.

Nafarroako Foru Komunitateak saio klinikoan parte hartzeko aukerari buruz, esan behar dugu

teknikoki ez dela bideragarria, boluntarioei saioan asko eskatzen zaielako (heroína benabarnetik sartzeari hamabi orduz behin, 6 hilabetez): Nafarroan ez dago benabarnetik heroína kontsumitzen duten behar adinako pertsona hura administratzeko talde bat eta ezaugarri berdineko kontrol talde bat osatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 10ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko egoitza berriko altzariak erosteko lehiaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen altzariak erosteko lehiaketarako dei egitea.

Kontratuaren xedea: Biltzarreko egoitza berri-rako altzariak erosi eta horiek instalatzea.

Gehieneko prezioa: Milioi bat hamasei mila eta hirurehun euro (1.016.300), BEZa barne, hemezortzi zatietan banatuak:

Esleipena egiteko prozedura: Lehiaketa, irekia.

Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio baldintza partikularren orrian esaten direnak. Aurkeztutako agiriak jatorrizkoak izan beharko dute edota konpultsatuak bai notario bidez, bai administrazio bidez.

Proposamenak aurkezteko lekua eta epea: Erregistro Orokorrean, Arrieta kalean, 12-3. 2002ko uztailaren 2ko hamabiak arte.

Proposamenak irekitzea:

Teknikoak: 2002ko uztailaren 16an, 12:00etan, Arrieta kalean, 12-4. solairuan.


Ekonomikoak: 2002ko abuztuaren 8an, 12:00etan, Arrieta kalean, 12-4. solairuan.

Administrazio baldintzen orria eta baldintza teknikoak lizitatzailen esku daude hala Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Arrieta kalea, 12-4. solairuan) nola Nafarroako Parlamentuak duen web gunean (www.parlamento-navarra.es).

Informazioa: Telefonoa: 948 209 209. Faxe: 948 22 84 44, registro@parlamento-navarra.es.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	